

Lezaman, 2004.eko martxoaren 26an

Batzar-agiria

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Juan Mari Lekuona,
Jose Luis Lizundia,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
eta Piarres Xarritton,
euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, eta Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Henrike Knörr, ahala J.L. Lizundiari; Patxi Altuna, ahala P. Goenagari; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Patxi Ondarra, ahala A. Iñigori; Ibon Sarasola, ahala P. Salabururi.

Batzarra goizeko 10,12ean hasi da Lezamako Udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea.

Otsaileko batzarraren akta, J.L. Lizundiaren ohar birekin onartu da.

2. Jagon Saileko Corpusa: «Adierazpena Euskalkien erabileraz Irakas-kuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan». A. Urrutiak testua aurkeztu du eta J.L. Lizundiak pasarte batzuen ordenari egindako zuzenketarekin, ontzat eman da. Adierazpena apirilaren lehen azalduko da prentsa aurrean Euskaltzaindiaren egoitzan.

3. Hizkuntza arauak.

3.1. Hiztegi Batua: *aurpegiera-azalkeria* zerrendako hitzen oharrak aztertu dira, *auto-tik azalgarri*-ra arte.

3.2. Hiztegi batuaren eztabaidarako oharra. P. Salaburuk Hiztegi Batuko hitz zerrendari oharrak egiteko prozedura proposamena aurkeztu eta azaldu du, lan hori errazteko asmotan. J.L. Lizundiak eskaturik, toponomastikako sarrerei buruzko argitasunak ere eman ditu. X. Kintanak, A. Urrutiak, A. Iñigok, P. Goenagak eta P. Xarrittonek ere ohar batzuk egin dituzte. Azkenean, P. Salaburuk bere «Hiztegi batuko eztabaidarako oharrean» aipatu bezala, Onomastika batzordeari herritarren izenen eta hizkuntzen izenen proposamen zehatza egin dezan eskatzea erabaki da.

3.3. Hiztegi Batua: *Azalki-azuzena*-ko zerrendako hitzak aztertu dira, *azaloste-azkura*-raino helduz.

4. Andolin Eguzkitza euskaltzainaren heriotza.

Euskaltzainburuak euskaltzainei A. Eguzkitza martxoaren 24an hil dela jakinarazi die, eta hileta-elizkizunak arratsaldean Santurtzin izango direla. Bertara joateko, Euskaltzaindikoek autobus bat izango dute. Familiak hala eskaturik, hilkutxa eramateko, hiru andari behar direla eta, Zuzendaritzako bizkaitarrek eskaini dute beren burua horretarako.

Andolin Eguzkitzari buruzko prentsa-dosierra ere prestatu dela azaldu du eta euskaltzainen artean banatu da. Ondoren, Euskaltzaindian jasoriko dolumin-gutun ugariak, telegramak eta mezuak irakurri ditu euskaltzainburuak.

Bestalde, erakundearen arautegiarekin bat, euskaltzain zenduaren ordezkoko kandidateak aurkezteko epea apiril-maiatz artekoa izango dela iragarri du Euskaltzainburuak, hautaketa ekainean egiteko.

5. Mikel Zarateren omenaldi-hitzaldiak.

Arratsaldeko jende aurreko ekitaldian Mikel Zarate idazlearen omenez egiteko ziren hitzaldiak, A. Eguzkitzaren hiletak direla eta, hurrengo ostegunerako, apirilaren lerako, uztea erabaki da.

6. Azken ordukoak.

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak eta Euskadiko Kuxak hala eskaturik, Urteko Euskal Herritar Unibertsala izendatzeko bere hautagaia onartu du Euskaltzaindiak, Pello Salabururen proposamenez: Renoko *Center for Basque Studies*. Hala jakinaraziko zaie.

Andres Iñigok, azken estatistiken arabera, Nafarroako 3 urteko hauren %30ak D ereduan matrikulatu direlako berri ona eman du. Bide batez, J.M. Satrustegi nafar euskaltzain zenduaren omenez bere jaioterrian, Arruazun, egingo zaion omenaldira Euskaltzainditik zenbat lagun joango diren zehaztu nahi izan du, lekua erreserbatzeko: J. Haritschelhar, A. Iñigo bera, X. Kintana, H. Knörr, E. Larre, J.L. Lizundia, B. Oihartzabal, P. Salaburu, P. Xarritton, A. Urrutia, P. Zabaleta eta J.J. Zearreta joatekoak dira.

Azkenik, P. Xarrittonek Baionako udalari, kale bati Pierre Lhande-ren izena ezarzteza eskatzeko asmoa duela jakinarazi du.

Bilkura arratsaldeko 2,15etan amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana